

# KANDINGA LEHOIA

Egokitzapena: **BONIFACE OFOGO**

Irudiak: **ELISA ARGUILÉ**

Itzulpena: **MANU LÓPEZ GASENI**

Kartoi gogorrean egina. 26,5 x 21 cm. 40 or. 16 €.

CITTÀ DI BELLA SARIKO AIPAMEN BEREZIA 2011  
IRAKURKETA GOMENDATUA (FNLIJ SARIA Brasil) - 2011  
CJ KULTURA FUNDAZIOAREN SARIA (Korea) - 2009

**Kandinga lehoia** (euskara)

ISBN 978-84-9172-211-3. Album irudidunak. Herri ipuinak.

**El león Kandinga** (gaztelania)

ISBN 978-84-92608-01-0. Álbum ilustrado. Cuentos tradicionales.

**O león Kandinga** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-711-9. Álbum ilustrado. Os contos do trasno.

**El lleó Kandinga** (katalana)

ISBN 978-84-18558-09-2. Àlbum ilustrat. Contes tradicionals.

**O leão Kandinga** (portugesa)

ISBN 978-989-8205-10-0. Álbum ilustrado. Contos tradicionais.

**Il leone Kandinga** (italiera)

ISBN 978-88-95933-27-6. Albo illustrato. I racconti tradizionali.

Bazen behin, duela urte asko, Kandinga izeneko lehoi bat.

Lehoirik ahaltsuena zen, baita gaiztoena ere.

Hainbestekoa zen haren gaiztakeria, gosea asetzearren

ez zuela zalantzarik izaten bere adiskideak mauka-mauka jateko.

Horregatik geratu zen bakarrik.

Haren adiskideek, bikotekideak eta lehoikumeek alde egin zuten...

Kandingaren istorioak afrikar herrietako milaka urteko jakituria,

ahozko tradizioa eta kultura-aberastasuna biltzen ditu.

Kontakizuna urruneko sabanarainoko irudizko bidaia bat egiteko

gonbitea da, hango biztanleak ezagutzeko: krokodiloak, elefanteak,

eta abar. Eta, haien guztien gaineko hegemonia gauzatzen duena:

lehoia. Alegia honetako protagonista bere krudeltasuna dela

eta gain behera etorritako errege bat da -zaharra, gaixorik

eta bakarrik-. Norberekoikeria eta zekenkeria ez dira bidaide onak,

basa animalientzat ez ezik, gizakientzat ere...

Boniface Ofogok giza portaerari buruzko gogoeta bat aurkezten du,

eta bere jaioterriaren esperientzia jartzen du irakurleen zerbitzura,

ikasbide hauxe aintzat hartzeko: "Asko baduzu, ona da ezer ez

dutenekin partekatzea". Elisa Arguilék estilo primitiboko ilustrazioak

erantsi dizkio testuari, zeinetan adierazpen-indarra eta kolore-

kontrasteak nabarmentzen diren

«Kandinga lehoia» bantutarren ahozko tradizio agorrezinetik dator,

zeinak Kamerun erdialdetik Hegoafrikara bitarteko sabana


eta oihanetan bizi den tribu bat diren. Haien istorio gehienek

gizakiaren eta natura-ingurunearen arteko harreman estua islatzen

dute. Horren bidez, KALANDRAKA etxeak munduaren inguruko

ibilbide bati ematen dio hasiera, Kandingarenaren antzeko istorio

liluragarriak datozen lekuetako kontalarrien eskutik.



■ **Gala:** afrikar ipuin tradizionala.

■ **Adin egokia:** 7 urtetik aurrera.

■ **Nabarmentzekoak:** bantutarren ahozko tradizioa (Kamerun); elkartasunaren eta eskuzabaltasunaren inguruko gogoeta; ingurunearen ezagutza: sabanako flora eta fauna, animalia belarjale eta haragijaleen arteko aldea; Afrikako herrien historia eta geografia.

■ **Liburu-aurrezapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/kandinga-lehoia-eusk>

## Boniface Ofogo

(Omassa, Kamerun, 1966)

Kamerun barrualdeko herrikoa batean jaio eta hazi zen. Espainiara 1988an heldu zen, Filologia Hispanikoa ikastera, eta 1992an hasi zen kontalari lanean. Kulturarteko bitartekari lana egin du Madrileko udalerako; 2005etik bete-betean dihardu balio didaktiko eta kulturalen istorioak kontatzen ikasketxe, biblioteka eta kultura-etxetan. Afrika beltzeko alegia, elezahar, mito eta tradizioetan aditua da. Espainia osoan aritu da (Guadalajarako Ipuin Maratoia, el Fórum de las Culturas de Bartzelonako Kulturen Foruma 2004, Jaka eta Eltxeko Ahozkotasan Jaialdiak), baita beste herrialde askotan ere: Frantzia, Mexiko, Kuba, Brasil, Costa Rica, Kolonbia, Argentina, Cabo Verde, Maroko...

<http://boniofogo.com>

## Elisa Arguilé

(Zaragoza, 1972)

Grabatugintza ikasi zuen Madrileko Arte Ederren Fakultatean. Bere hasierako ilustrazioak argialetxe eta komunikazio-etxeentzat egin zituen. 1999an, txotxongilo-konpainia baterako eskultore, muralgile eta ilustratzaile aritu ondoren, haur literaturan hasi zen. Gerotik, haurrentzako album asko ilustratu ditu. Beste zenbait sariren artean, honako hauek jaso ditu: Junceda Saria 2008, Ilustrazioaren arloko Sari Nazionala 2007, Daniel Gil Saria 2006 eta Album ilustratuaren arloko Alacanteko Saria 2002.

